AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

JUSTIZIA ETA HERRI ADMINISTRAZIO SAILA

2599

105/2012 DEKRETUA, ekainaren 5ekoa, zeinen bitartez Loreto Abaigar Echegoyen andreak Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoko batzordekide izateari utziko baitio.

Loreto Abaigar Echegoyen andreak 2012ko ekainaren 1etik aurrera batzordekide izateari uzteko idazkia aurkeztu duenez, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoari buruzko azaroaren 24ko 9/2004 Legearen 8.2.c) eta 8.3 artikuluetan ezarritakoaren arabera, Justizia eta Herri Administrazioko sailburuaren proposamenez, eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2012ko ekainaren 5ean egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT

1. artikulua.– Loreto Abaigar Echegoyen andrea Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoko batzordekide kargutik kentzea, eta bide batez, eskerrak ematea egin duen lanagatik.

2. artikulua.– 2012ko ekainaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak dekretu honek.

Vitoria-Gasteizen, 2012ko ekainaren 5ean.

Lehendakaria,
FRANCISCO JAVIER LÓPEZ ÁLVAREZ.

Justizia eta Herri Administrazioko sailburua,
IDOIA MENDIA CUEVA.